



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko azaroaren 18a

133. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio atzera egin dezan Osasun Mentaleko itunak esleitzeko irizpideak aldatzeko asmoan. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kulturari buruzko Plan Estrategikoa osatu eta Legebiltzarrera igor dezan. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eunateko Santa Mariaren inguruko jarduketak osa ditzan. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da substantziarik gabeko adikzio gisa sar dezan ludopatia 2012an onetsitako Droga-mendekotasunaren Foru Planaren metodologian eta lan-sisteman. Osasun Batzordeak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urte anitzeko finantzaketa eman dezan Erregeren Or baitzetako Arma Olako jauregia zaharberritzeko proiekturako. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, entitate publikoetako izaera pertsonaleko fitxategiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nafarroako kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteentzako 2013rako diru-laguntzen deialdiaren emaitzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio atzera egin dezan Osasun Mentaleko itunak esleitzeko irizpideak aldatzeko asmoan.

*SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA
IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuari eskatzen baitzaio atzera egin dezan Osasun Mentaleko itunak esleitzeko irizpideak aldatzeko asmoan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Orain dela gutxi jakin dugu Nafarroako Gobernuak Osasun Mentaleko zentro itunduak eslei-

tzeko irizpideak aldatzeko asmoa duela, alderdi ekonomikoari balio handiagoa emateko.

Asteotan aukera izan dugu bisitan joateko Eguneko I. Ospitalera eta Burlatako Osasun Etxera –Argibide Fundazioak kudeatzen ditu–, eta horien bilakaera eta kudeaketa ezagutzeko.

Gure ustez, bereziki larria da osasun mentala bezain sentikorra den esparru batean lehentasuna ematea alderdi ekonomikoari, eta ez alderdi teknikoari, arriskuan jarriz zerbitzuaren kalitatea eta atea irekiz irabazi asmoko enpresei, hasiera batean eskaintza ekonomiko hobekoak egin ditzaketenak, baina kudeaketa eta kalitate teknikoa bermatu gabe.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio atzera egin dezan Osasun Mentaleko itunak esleitzeko irizpideak aldatzeko asmoan, eta orain arteko baremoa mantentzeko asmoan, eta orain arteko baremoa mantentzeko asmoan, eta orain arteko baremoa mantentzeko asmoan –alderdi teknikoa, % 60ko balioa; alderdi ekonomikoa, % 40koa–, zerbitzuaren kalitatea bermatzeko xedez.

Iruñean, 2013ko azaroaren 14an

Foru parlamentariak: Samuel Caro Sádaba, Bakartxo Ruiz Jaso, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano eta Marisa de Simón Caballero

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Kulturari buruzko Plan Estrategikoa osatu eta Legebiltzarrera igor dezan.

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2013ko azaroaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Kulturari buruzko Plan Estrategikoa osatu eta Legebiltzarrera igor dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Kulturari buruzko Plan Estrategikoaren eduki gaurkotua 2014ko urtarrilaren 31 baino lehen igor dezan Legebiltzarrera, Nafarroako Kultura Kontseiluak eta planaren berri izan dezaten eta beren balorazioa egin dezaten igorri zaien beste talde batzuek egindako ekarpenak barne.

2. Dokumentua aberasteko eta lankidetzan ari zeko espiritu horrekin bat, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du taldeek egindako iradokizunak jaso ditzan planean; zehazki, ondokoak:

- Bultzatu nahi diren ekintzak burutzeko epeak eta baliabideak.
- Hurrengo bi urteotarako aurreikusitako neurri garrantzitsuenak zehaztea, ahal den neurrian.
- Ardatz bakoitzaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema, planeko jarduerak zertan diren jakin ahal izateko, emaitza-adierazleen garapena aldi-aldi neurtu ahal izateko eta desbideraketak neurtzeko".

Iruñean, 2013ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Eunateko Santa Mariaren inguruko jarduketak osa ditzan.

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2013ko azaroaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Eunateko Santa Mariaren inguruko jarduketak osa ditzan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazi nahi du ekaitzen eta alboko lursailak ureztalur bihurtu izanaren ondorioz Eunateko Santa Mariaren inguruan izandako gertakariak direla-eta; izan ere, horiek kontuan hartu eta zuzendu beharra dago, etorkizunean gerta litezkeen kalteak ekiditeko.

2. Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu Nafarroako Gobernuak eraginkortasunez eta

azkartasunez egindako larrialdi jarduketak, egoera zein den ikusita.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du ondasunaren titularrarekin –Muruzabalgo parrokiak– negoziak dezan eraikina irekitzeko ordutegia zabaltzea, azken urteotan izandako bisitari kopurua ikusita.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du eraikina inguratzen duen herrilurraren titularrarekin –Muruzabalgo Udala– negoziak dezan aspertsoreen arazoaren konponbidea, hezetasunak etorkizunean eragin lezakeen arazoa ekiditeko, multzoaren kalterako baita.

5. Eunateko Santa Mariaren berezitasuna eta izaera enblematikoa ikusita, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du eraikina kontserbatzeko prebentzio plan bat taxutu dezan, babes mailarik handiena emanez, 2013-2016 urteotarako Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Urte Anitzeko Planean ezarritakoarekin bat.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan hori Legebiltzarrari igor diezaion 2014ko martxoaren 31 baino lehen, eta Muruzabalgo parrokiarekin eta udalarekin egindako zuzemenean berri eman diezaion".

Iruñean, 2013ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da substantziarik gabeko adikzio gisa sar dezan ludopatia 2012an onetsitako Droga-mendekotasunaren Foru Planaren metodologian eta lan-sisteman.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2013ko azaroaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da substantziarik gabeko adikzio gisa sar dezan ludopatia 2012an onetsitako Droga-mendekotasunaren Foru Planaren metodologian eta lan-sisteman".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ludopatia espresuki sar

dezan substantziarik gabeko adikzio patologiko gisa Drogamenpekotasunari buruzko Foru Planeko lan metodologian eta sisteman, zeina 2012an onetsi baitzen eta 2016ra bitarte egonen baita indarrean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du beharrezkoak diren baliabideak bidera ditzan adikzio hori eta norbanakoaren osasunean dituen ondorioak –gaixotasuna– pairatzen dituzten pertsonen laguntzeko".

Iruñean, 2013ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urte anitzeko finantzaketa eman dezan Erregeren Or baitzetako Arma Olako jauregia zaharberritzeko proiekturako.

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2013ko azaroaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urte anitzeko finantzaketa eman dezan Erregeren Or baitzetako Arma Olako jauregia zaharberritzeko proiekturako."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak, zeinaren Kultura Batzordeak bisita egin baitzuen 2012ko maiatzaren 18an Erregeren Or baitzetako Arma Olako

jauregira, berretsi egiten du esku-hartze hori egitearen alde duen interesa, kulturaren esparru hutsetik harago doalako; hain zuzen ere, Nafarroako Pirinioetako eskualde horren garapen sozial eta ekonomikorako palanka bihurtzeraino.

2 Halaber, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du obrak finantza ditzan, baldin eta obra horiek Ministerioak ezarritako epean hasten badira, eskatutako baldintzekin bat, eta Ministerioak bere konpromisoa betetzen badu".

Iruñean, 2013ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, entitate publikoetako izaera pertsonaleko fitxategiei buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eloy Villanueva Cruz jaunak egindako galderaren erantzuna, entitate publikoetako izaera pertsonaleko fitxategiei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako Eloy Villanueva Cruz jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du entitate publikoetako izaera pertsonaleko fitxategiei buruz (PES-142). Hauxe erantzun dio Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak:

1. Zer organok betetzen duen, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek sortu edo kudeatutako izaera pertsonaleko fitxategiak kontrolatzeko eginkizuna.

Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek sortutako izaera pertsonaleko fitxategiak kontrolatzeko eginkizunak Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak betetzen ditu. Foru Komunitateak datuak babesteko bulegorik ez sortzea hautatu du, autonomia erkidego gehienek bezala.

2. Organo hori non dagoen Nafarroako Gobernuaren organigramaren barruan.

Datuak Babesteko Espainiako Bulegoa zuzenbide publikoko erakundea da, eremu nazionale-

koa. Beraz ez dago Nafarroako Gobernuari atxikita.

3. Kontrol organo horren eginkizunak zein egunetan hasi ziren, eta zer pertsona edo kargu arduratzen den horretaz.

Datuak Babesteko Espainiako Bulegoa 1993an sortu zen eta haren estatutua urte berean onetsi zen, martxoaren 26ko 428/1993 Errege Dekretuaren bidez. Bulegoaren zuzendaria da arduraduna, gaur egun José Luis Rodríguez Álvarez.

4. Egindako jarduketa nagusiak

Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren jarduketak haren oroitidazkietan azaltzen dira. Dokumentu horiek web www.agpd.es atarian argitaratzen dira.

5. Ea Nafarroako Gobernuak sortu duen, legeak horretarako bidea ematen dionez gero, Nafarroaren esparru publikoan dauden izaera pertsonaleko fitxategien erregistro bat. Baiezkoan, erregistroa zein egunetan sortu zen jakin nahi dugu, bai eta erregistro mota hori duten herrien zerrenda eduki ere, fitxategi horietako bakoitzaren gaia zehaztuta.

Gorago adierazi denez, Nafarroako Gobernuak ez du datuak babesteko bulegorik sortu, ezta, ondorioz, erregistrorik ere. Erregistro horiek Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren esku-menekoak dira.

Hori guztia, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2013ko urriaren 25ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, Nafarroako kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteentzako 2013rako diru-laguntzen deialdiaren emaitzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteentzako 2013rako diru-laguntzen deialdiaren emaitzei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Populares de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteentzako diru-laguntzen deialdiaren emaitzei buruz (8-13/PES-00143). Hauxe erantzun dio Gizarte Politiketako kontseilariak:

- Deialdian parte hartu zuten elkarteak.

Nafarroako kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkartei diru-laguntzak emateko 2013ko deialdia Gizarte Politiketako kontseilariaren ekainaren 10eko 511/2013 Foru Aginduaren bidez arautu zen. Entitate hauek parte hartu zuten deialdian:

– “Irache” Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarteak.

– “Santa María la Real” Nafarroako Etxeko Andreen, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkarteak.

– Fiteroko Kontsumoko Kooperatiba Elkarteak.

- Diru-laguntza lortu zuten elkarteak eta emandako zenbatekoa.

Aurkeztutako hiru entitatei esleitu zaie diru-laguntza. Zenbateko hauek eman zaizkie:

– “Irache” Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarteari 36.158,44 euro

– “Santa María la Real” Nafarroako Etxeko Andreen, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkarteari 12.047,64 euro

– Fiteroko Kontsumoko Kooperatiba Elkarteari 10.481,92 euro.

- Zer egunetan esleitu ziren diru-laguntzak.

Diru-laguntzak Gizarte Politikako eta Kontsumoko zuzendari nagusiaren irailaren 13ko 1395/2013 Ebazpenaren bidez esleitu ziren.

• Diru-laguntza lortu zuen elkarte bakoitzari dagokionez, diruz lagundutako proiektuen, programen edo jardueren zerrenda eskatzen dugu, bai eta kasu bakoitzean emandako diru-laguntza ere.

a) “Irache” Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarteak.

– Bere bulegoetan zuzeneko eta doako laguntza ematea kontsumitzaile eta erabiltzaileei, beren eskubideen gaineko informazioarekin eta erreklamazio, salaketa nahiz kexen izapidetzearekin lotuta: 8.879,80 euro eman zaizkio.

– Kontsumo arduratsuari buruzko hezkuntza programak ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleentzat: 5.000 euro eman zaizkio.

– Kontsumo arduratsuari buruzko hezkuntza programak gazteentzat, Gazteriaren Foru Estrategiaren esparruan: 6.698 euro eman zaizkio.

– Jardunaldi, ikastaro, hitzaldi, mintegi, mahai-inguru eta bestelako jarduerak antolatzea kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa eta prestakuntza emateko. Kolektibo bereziki behar-tsuei (mendekotasuna dutenak, gizartetik baztertuak eta etorkinak) zuzendutakoak baloratuko dira: 3.580,64 euro eman zaizkio.

– Krisiaren kontrako ekonomiari buruzko ikastaroak familientzat: 5.000 euro eman zaizkio.

– Helduei kontsumoaren arloko informazioa eta prestakuntza emateko jardueren programak: 7.000 euro eman zaizkio.

b) “Santa María la Real” Nafarroako Etxeko Andreen, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkarteak.

– Bere bulegoetan zuzeneko eta doako laguntza ematea kontsumitzaile eta erabiltzaileei, beren eskubideen gaineko informazioarekin eta erreklamazio, salaketa nahiz kexen izapidetzearekin lotuta: 8.060,10 euro eman zaizkio.

– Jardunaldi, ikastaro, hitzaldi, mintegi, mahai-inguru eta bestelako jarduerak antolatzea kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa eta

prestakuntza emateko. Kolektibo bereziki behar-tsuei (mendekotasuna dutenak, gizartetik baztertuak eta etorkinak) zuzendutakoak baloratuko dira: 3.987,54 euro eman zaizkio.

– Helduei kontsumoaren arloko informazioa eta prestakuntza emateko jardueren programak: 0 euro eman zaio.

c) Fiteroko Kontsumoko Kooperatiba Elkarte.

– Bere bulegoetan zuzeneko eta doako laguntza ematea kontsumitzaile eta erabiltzaileei, beren eskubideen gaineko informazioarekin eta erreklamazio, salaketa nahiz kexen izapidetzearekin lotuta: 8.060,10 euro eman zaizkio.

– Jardunaldi, ikastaro, hitzaldi, mintegi, mahai-inguru eta bestelako jarduerak antolatzea kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa eta prestakuntza emateko. Kolektibo bereziki behar-tsuei (mendekotasuna dutenak, gizartetik baztertuak eta etorkinak) zuzendutakoak baloratuko dira: 2.431,81 euro eman zaizkio.

– Helduei kontsumoaren arloko informazioa eta prestakuntza emateko jardueren programak: 0 euro eman zaio.

• Diruz lagundutako proiektu edo jarduketa bakoitzak lortutako puntuazioa, diru-laguntzen deialdiko bosgarren oinarriarekin bat.

a) "Irache" Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarte.

– Bere bulegoetan zuzeneko eta doako laguntza ematea kontsumitzaile eta erabiltzaileei, beren eskubideen gaineko informazioarekin eta erreklamazio, salaketa nahiz kexen izapidetzearekin lotuta: 65 puntu lortu ditu.

– Kontsumo arduratsuari buruzko hezkuntza programak ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleentzat: 20 puntu lortu ditu.

– Kontsumo arduratsuari buruzko hezkuntza programak gazteentzat, Gazteriaren Foru Estrategiaren esparruan: 20 puntu lortu ditu.

– Jardunaldi, ikastaro, hitzaldi, mintegi, mahai-inguru eta bestelako jarduerak antolatzea kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa eta prestakuntza emateko. Kolektibo bereziki behar-tsuei (mendekotasuna dutenak, gizartetik baztertuak eta etorkinak) zuzendutakoak baloratuko dira: 44 puntu lortu ditu.

– Krisiaren kontrako ekonomiari buruzko ikastaroak familientzat: 20 puntu lortu ditu.

– Helduei kontsumoaren arloko informazioa eta prestakuntza emateko jardueren programak: 63 puntu lortu ditu.

b) "Santa María la Real" Nafarroako Etxeko Andreen, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkarte.

– Bere bulegoetan zuzeneko eta doako laguntza ematea kontsumitzaile eta erabiltzaileei, beren eskubideen gaineko informazioarekin eta erreklamazio, salaketa nahiz kexen izapidetzearekin lotuta: 59 puntu lortu ditu.

– Jardunaldi, ikastaro, hitzaldi, mintegi, mahai-inguru eta bestelako jarduerak antolatzea kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa eta prestakuntza emateko. Kolektibo bereziki behar-tsuei (mendekotasuna dutenak, gizartetik baztertuak eta etorkinak) zuzendutakoak baloratuko dira: 44 puntu lortu ditu.

– Helduei kontsumoaren arloko informazioa eta prestakuntza emateko jardueren programak: 51 puntu lortu ditu.

c) Fiteroko Kontsumoko Kooperatiba Elkarte.

– Bere bulegoetan zuzeneko eta doako laguntza ematea kontsumitzaile eta erabiltzaileei, beren eskubideen gaineko informazioarekin eta erreklamazio, salaketa nahiz kexen izapidetzearekin lotuta: 59 puntu lortu ditu.

• Jardunaldi, ikastaro, hitzaldi, mintegi, mahai-inguru eta bestelako jarduerak antolatzea kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa eta prestakuntza emateko. Kolektibo bereziki behar-tsuei (mendekotasuna dutenak, gizartetik baztertuak eta etorkinak) zuzendutakoak baloratuko dira: 39 puntu lortu ditu.

• Helduei kontsumoaren arloko informazioa eta prestakuntza emateko jardueren programak: 48 puntu lortu ditu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urriaren 25ean

Gizarte Politiketako kontseilaria: Iñigo Alli Martínez